

**NEGU-GOMUTETAN**

**I**

**BIZITZA OTE-LOREA OTE?**

Azken eguzki-errainuetan  
horitan dir-dir hori  
badute ote-lorek  
mendiaren hegal-magalean.

Zer ote duten erakargarri  
jakin nahi eta ezin.  
Atzoko ziztadek min,  
bihar izango omen da argi.

Erleak loreari bezala  
nahiko nioke so egin  
bizitzari benetan  
presarik gabe oso-osoan.

Ezin oratu, ezin laztandu,  
nahiko nukeen arren.  
Mingarri oso dagit  
izatea hain gertu, hain urrun.

## II

### BI TXORI EKAITZETAN DANTZAN

Bi txori, bi arima  
paraleloan hegan  
haizearekin dantzan  
elkarri helduta bezala.

Beltz da ageri  
zerua sakon antzera  
hodei koskorrez betea  
haien zelatari atzean.

Bi txori, bi arima  
paraleloan hegan  
haizearekin dantzan  
elkarri helduta bezala.

Ez dira ikaratu,  
kikildu, gelditu,  
galdu, errenditu,  
damutu, ernegatu.

Bi txori, bi arima  
paraleloan hegan  
haizearekin dantzan  
elkarri helduta bezala.

Badator ekaitza  
mehatxuka, oihuka,  
hartu nahian moduan  
gerizpetan preso argia.

Bi txori, bi arima  
paraleloan hegan  
haizearekin dantzan  
elkarri helduta bezala.

Ez dute ordea ihes egingo,  
gora baino, zero alderaino,  
aske eta ez mendeko  
gailenduko baitzaizkio.

III

**GEROAREN DENBORA GELDIARAZIZ**

Zeru hodeitsu ilun,  
itsasoa bare geldi.  
Bi maitemindu  
eskutik oraturik  
hondar zuritan leun,  
geroaren denbora geldiaraziz.

Zergatik patuari beldur izan?  
Arbelezko harkaitzetan  
labainkor diren olatuak bezala  
izan beharko liratekete  
hilkorrontzat kezka guztiak.

Urertzean eraikitako gaztelua,  
idatzitako mezua,  
behin-behineko kontua,  
halabeharrez desagertzera kondenatua,  
argazki batean jaso ezean.

Sustrai sakonak dituen maitasunak  
jasango ditu hodei ilunak, itsaso handiak,  
iragana zinez berritzen  
itsaso baretan, hondar zuritan,  
argazkia errealitate eginez.

*F. Javier Arrieta Idiakez*